

Hobekuntzak Erandioko udal liburutegietan

Erandioko Udalak hobekuntzak egingo ditu udal liburutegietan.

Astrabuduako liburutegiko helduen irakurgela handian apal gehiago jarriko dituzte. Umeen irakurgela hustu, berritu eta umeentzako egokiagoak diren mahai, aulki, apalategi eta era guztietako altzariz hornituko dute. Gainera, 0 eta 4 urte bitarteko haurrei zerbitzua emateko txoko bat ere prestatuko dute, kuxin eta koltxonetaz hornitua. Altzagako liburutegian altzariak aldatuko dituzte ere. Bi liburutegietan CD eta DVD erabiltzeko egokiak diren altzariak jarriko dituzte. Horrez gain, aldizkaritegi, interesgune eta atera berrien sailetarako altzari berriak erosiko dituzte.

Bestalde, aztertzen ari dira lapurretarik ez egoteko sistemaren bat jartzea bi liburutegietan. Astrabuduko liburutegiak 1.289 bazkide ditu eta Altzagakoak 1